



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 12a

8. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako 2015eko Kontu Orokorrei buruzkoa (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langileei zabaltzen diena. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aitor dezan merkataritza ibiltariak Nafarroan daukan garrantzia. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da epaitegietan salatu dezan foru erkidegoan gertatutako izaera politikoko ekintza bandaliko oro. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak onetsia (6. or.).

—Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa adierazten baitu kirol ikuskizunetako indarkeriazko ekintza orenen aurrean. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak onetsia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Haur eta Gazteentzako Osasun Mentalaren Zerbitzuaren hedapen bat ezar dezan Tuterako eta Lizarrako barrutietan. Osasun Batzordeak bazter utzia (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko hautagai bat izendatzea, Nafarroako Parlamentuak Senatuari aurkeztu beharrekoa. Hautapen-prozesua bete gabe gelditu da (8. or.).

—Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko hautagai bat izendatzea, Nafarroako Parlamentuak Senatuari aurkeztu beharrekoa (9. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—1/2016 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 28koa, Tributu Harmonizaziokoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2015eko Kontu Orokorrei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak, 2016ko ekainaren 29an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 2015eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura. Hari buruz, Kontuen Ganberak txosten bat eman du, 2016ko azaroaren 24ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldikari Ofizialean argitaratua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 157. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako 2015eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Legebiltzarraren Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako 2015eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrak prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezzen, hori guztia foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru legearen proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2015eko ekitaldiko kontu orokorrei buruz adierazitako trami-teak, Kontuen Ganberak emana du behar den irizpena eta izapidetua dago Nafarroako 2015eko kontu orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 154. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onetsi egiten dira Nafarroako 2015eko kontu orokorrak, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontuon edukia Nafarroako Atarian emanen da argitara.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langileei zabalitzen diena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak Foru Lege proposamena aurkeztu du, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langileei zabalitzen diena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langileei zabalitzen diena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langileei zabalitzen diena.

ZIOEN AZALPENA

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legeak, azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legeak eta maiatzaren 30eko 8/2008 Foru Legeak Osasun Departamentuaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko osasun arloko langile fakultatiboentzako lanbide karreraren sistema ezarri dute Nafarroako Foru Komunitatean. Lanbide karreraren sistema hori abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuaren eta ekainaren 8ko 54/2009 Foru Dekretuaren bidez garatu da.

Etengabeak izan dira apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen, azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legearen eta maiatzaren 30eko 8/2008 Foru Legearen aplikazio-eremutik kanpo geratu ziren Foru Komunitatearen Administrazioiko eta hari atxikitako erakunde autonomoetako osasun arloko langile fakultatiboen eta diplomadunen eskakizunak.

Hori dela eta, 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei gehitutako zenbait zuzenketaren bitartez, kontu-sail batzuk handitu egin ziren eta beste batzuk sortu ziren, "osasun arloko langile diplomadunen zati bati lanbide karrera ordaintzea" helburu hartuta. Halaber, Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko osasun arloko langile fakultatiboek eta diplomadunek lanbide karrera ordaindu ahal izateko kontu-sailak sortu dira 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan.

Hori dela-eta, honako foru lege hau proposatzen dugu, Nafarroako Gobernuak beste departa-

mentu batzuei eta erakunde autonomoei atxikitako langileei lanbide karreraren aplikazioa hedatzeko xedez.

1. artikulua. Xedea.

1. Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legeak ezarritako lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua zabalduko zaie Nafarroako Gobernu departamentu guztietako eta haren erakunde autonomoetako osasun langile fakultatibo guztiei, baldin eta lanpostua jabetzan badute eta haien sarbide eta izendapenerako nahitaezkoa bada edo izan bada urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean aurreikusitako "Fakultatibo espezialistak" edo "Bertze osasun fakultatiboak" izeneko estamentuetan lanpostuaren koadramenduan sartu ahal izateko osasun titulazioetako edozein edukitzea.

2. Maiatzaren 30eko 8/2008 Foru Legeak ezarritako lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua zabalduko zaie Nafarroako Gobernu departamentu guztietako eta haren erakunde autonomoetako osasun langile fakultatibo guztiei, baldin eta lanpostua jabetzan badute eta haien sarbide eta izendapenerako nahitaezkoa bada edo izan bada Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubidea erregulatzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean aurreikusitako osasun arloko diplomadunen estamentuan sartutako espezialitateetarako koadramenduan sartu ahal izateko osasun titulazioetako edozein edukitzea.

2. artikulua. Araubide juridikoa.

Foru lege honetan xedatzen ez denerako honako hau aplikatuko da:

a) Osasun arloko diplomadunen kasuan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun langile diplomadunen lanbide karrerako sistema ezartzeari eta hura finantzatzeko kreditu gehigarri bat onesteari buruzko maiatzaren 30eko 8/2008 Foru Legean eta hura garatzen duen ekainaren 8ko 54/2009 Foru Dekretuan xedatutakoa.

b) Osasun arloko fakultatibo kasuan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatibo lanbide karreraren sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legean, Lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen dien azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legean eta 11/1999 Foru Legea garatzeko arauak ezartzen dituen abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuan xedatutakoa.

3. artikulua. Ondorio ekonomikoak.

Hasierako koadramendua ezarritako arauekin eta prozedurarekin bat egin ostean, kasuan kasuko zenbatekoak ordainduko dira, 2016ko urtarrilaren 1eko eraginarekin osasun arloko diplomadunen kasuan eta 2017ko urtarrilaren 1eko eraginarekin osasun arloko fakultatibo kasuan.

4. artikulua. Ebaluazio batzordeak.

Lanbide karreraren sistemaren aplikazioa hedatzen zaien profesionalen ebaluazioa honako ebaluazio batzorde hauen eskumena izanen da:

a) Osasun arloko fakultatibo kasuan, Osasun Publiko, Administrazio eta Osasun Kudeaketako Ebaluazio Batzordearena.

b) Osasun arloko diplomadunen kasuan, Ospitale kanpoko Laguntzako eta Osasun Administrazio Ebaluazio Batzordearena.

Xedapen gehigarria. Egoera bereziak.

1. Foru lege honetan araututako lanbide karrerako sistema aplikatzekoa izango zaie haren aplikazio-eremuan sartzen diren langileei, osasun arloko profesional tituludunen lanpostuak atxikitzen zaizkieneko administrazio-unitateetako burutzak betetzen ari diren bitartean, foru lege honen erregelamendu bidezko garapenerako araudian ezarritako arauak jarraituz.

2. Foru lege honetan araututako lanbide karreraren sistema bere aplikazio-eremuko langileei aplikatuko zaie langileen ordezkari organoetako kide diren bitartean, legez ezarritako ordu-kredituaz lanaldi osoan baliatzen direnean. Kasu horretan, mailaz igotzeko, iraunaldiak betetzeaz gain, prestakuntzako, ikerketako eta garapen teknikoko jardueri buruzko baremoaren ataleko betebeharrak baizik ez zaizkie eskatu eta ebaluatuko, foru lege honen erregelamendu bidezko garapenerako araudian ezarritako arauak jarraituz.

Azken xedapenetan lehena. Foru lege hau garatu eta betearazteko gaikuntza.

Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aitor dezan merkataritza ibiltariak Nafarroan daukan garrantzia.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2017ko urtarrilaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aitor dezan merkataritza ibiltariak Nafarroan daukan garrantzia".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Merkataritza ibiltariak Nafarroan duen garrantzia aitor dezan, haren agerpen arruntenean –azoka txikia– eta gainerakoetan haren kultura sustatuz eta Nafarroako gizartean duen balio tradizionala adierazita.

2. Sektore hori sar dezan Nafarroako Gobernua gauzatzen ari den eraldaketa ekonomikoko eta berrikuntzako mugimendu guztietan, merkatarioriek kontuan hartuta mugimendu horietan guztietan parte hartzeari eta laguntzeari begira".

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da epaitegietan salatu dezan foru erkidegoan gertatutako izaera politikoko ekintza bandaliko oro.

LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak, 2017ko urtarrilaren 10an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da epaitegietan salatu dezan foru erkidegoan gertatutako izaera politikoko ekintza bandaliko oro".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du auzitegietan sala ditzan –Fiskaltzak berehala ofizios jarduten ez badu–, udalekin eta ukitutako gainerako entitateekin lankidetzan, bai eta, kasua bada, horretarako asmoa ager lezaketen elkarte eta partikularrekin batera, Foru Komunitatean gertatutako izaera politikoko ekintza bandaliko oro, haien erantzuleak identifikatuak izan daitezzen sustatzeko, eta behar den prozedura judiziala ezar dakien".

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa adierazten baitu kirol ikuskizunetako indarkeriazko ekintza ororen aurrean.

LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak, 2017ko urtarrilaren 10an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa adierazten baitu kirol ikuskizunetako indarkeriazko ekintza ororen aurrean.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa adierazten du kirol ikuskizunetako indarkeriazko ekintza ororen aurrean.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die poliziaren erasoaren ondorioz lesionatuta gertatu ziren Alavés taldearen zaleei.”

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Haur eta Gazteentzako Osasun Mentalaren Zerbitzuaren hedapen bat ezar dezan Tuterako eta Lizarrako barrutietan.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Haur eta Gazteentzako Osasun Mentalaren Zerbitzuaren hedapen bat ezar dezan Tuterako eta Lizarrako barrutietan.

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2017ko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2016ko irailaren 11ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko hautagai bat izendatzea, Nafarroako Parlamentuak Senatuari aurkeztu beharrekoa.

HAUTAPEN-PROZESUA BETE GABE GELDITU DA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuak Senatuari Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko aurkeztu behar dizkion bi hautagaiak hautatzeko arauekin bat –Mahaiak 2007ko abenduaren 10ean harturiko erabakiaren bidez onetsiak eta 2007ko abenduaren 17ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuak–, kontuan harturik 2016ko abenduaren 12ko erabakiaren arabera hautagaiak aurkezteko epea 2017ko urtarrilaren 9an bukatzen zela eta ikusirik parlamentu-taldeek eta foru parla-

mentarien elkarrekin ez dutela hautagairik aurkeztu, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea Nafarroako Parlamentuak Senatuari Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko hautagairik ez dagoela eta hautapen-prozesua bete gabe gelditu dela.

2. Erabaki hau jakinaraztea parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien elkarrekin eledunei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko hautagai bat izendatzea, Nafarroako Parlamentuak Senatuari aurkeztu beharrekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Senatuko lehendakariak jakinarazi duenez, Senatuko Mahaiaren 2016ko abenduaren 20ko Erabakiaren bidez 2017ko otsailaren 10era arte luzatu da autonomia erkidegoetako legebiltzarrek Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko hautagaiak aurkezteko epea.

Nafarroako Parlamentuak aurkeztu beharreko hautagaietatik bat izendatu gabe gelditu denez, eta autonomia erkidegoetako legebiltzarrek beren proposamena egiteko epea luzatu denez, egoki da hautapen-prozesua berriro abiatzea, izendatu gabeko hautagaia izendatzeko.

Hori horrela, Eledunen Batzarrarekin bat, ERA-BAKI DA:

1. Berriro ere abian jartzea Konstituzio Auzitegiko magistratu-postu hutsa betetze aldera Nafarroako Parlamentuak Senatuari aurkeztu beharreko hautagaia izendatzeko prozesua.

2. Xedatzea arestian aipatu den magistratu-postua betetzeko hautagaia, Senatuari aurkeztu beharrekoa, aukeratuko dela 2007ko abenduaren

10eko Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakiaren bidez onetsitako arauetan ezarritakoari jarraituz (40. NPAO, 2007-12-17koa), eta arau horiek egokitu behar zaizkiola aukeratu beharreko hautagaia bakarra izateari.

Egokitzapen horiek direla eta, arau hauek aplikatuko dira, bereziki:

a) Parlamentu-talde bakoitzak hautagai bakarra aurkezten ahalko du.

b) Osoko Bilkurak hautagaia izendatzeko botazioan, foru parlamentariak Mahaiak aldarrikaturiko hautagaietako baten izena soilik jasotzen ahalko dute txartelean.

3. Ezartzea honako hau izanen dela Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko hautagaiak aurkezteko epea: erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 2017ko urtarrilaren 30eko 09:30era arte.

4. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

1/2016 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 28koa, Tributu Harmonizaziokoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duen abenduaren 28ko Tributu Harmonizazioko 1/2016 Legegintzako Foru Dekretuaren ziurtagiria igorri du Nafarroako Gobernuak.

Kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, hona ERABAKIA

1. Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duen abenduaren 28ko Tributu Harmonizazioko 1/2016 Legegintzako Foru Dekretuaren berri izan duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1/2016 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 28koa, Tributu Harmonizaziokoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 35.1. artikulua ezartzen du Foru Komunitateari dagokiola fabrikazioko zerga berezien ordainarazpena, haiek Nafarroan sorrarazten direnean.

Bestalde, lege testu horren beraren 35.6 artikulua ezartzen duenez, Foru Komunitateari

dagozkion zerga bereziak ordainarazteko orduan, unean-unean Estatuko lurraldean indarra duten oinarriko printzipio, arau substantibo eta arau formal berak erabiliko ditu. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitortzen eta ordainketak egiteko ereduak onesten ahal ditu, gutxienez ere lurralde erkideko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak finkatzen ahal ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetik asko aldentu gabe.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 54.1 artikuluan, legegintzako ekimena eta Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, tributu-araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Estatuan indarra duten arau substantibo eta formal berberak Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak eman ditzake, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Aipatu 14/2004 Foru Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren xedapen horiei, aipatu legegintzarako eskuordetzearen ondorio direnean, "tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu" izena eman zaie.

Finantza publikoak sendotzeko tributuen arloko neurriak eta arlo sozialeko presako neurri batzuk hartzen dituen abenduaren 2ko 3/2016 Errege Lege Dekretuak aldaketak ekarri ditu Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen esparruan. Zehazki, tarteko produktuei buruzko zergan eta alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zergan, tarteko produktuen eta alkoholaren eta edari eratorrien kontsumoa zergapetzen dituen fiskalitatea ehuneko 5 igo da.

Zerga tasen aldaketak laguntzen du berdintzen Europar Batasuneko kide diren gainerako estatu-

kin alderatuta fiskalitatean dagoen aldea, apalenak izaten jarraitzen badute ere.

Arau aldaketa horiek direla eta, beharrezkoa da, lehen aipatutako legegintzarako eskuordetzea erabiliz, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu baten bidez Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 54.1 artikularekin bat, Estatuarekin sinatutako Hitzarmen Ekonomikoaren 35. artikulua arabera Nafarroako Foru Komunitateak Estatuko lurraldean indarra duten arau berdin-berdinak –bai substantiboak bai formalak– aplikatu behar dituen alderdietarako.

Berariaz xedatzen da legegintzako foru dekretu honetan 2016ko abenduaren 3tik aurrera izanen dituztela ondorioak egindako aldaketek. Eta hori, oinarri hartuta tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretuek atzerako eraginkortasuna izaten ahalko dutela, indarra har dezaten harmonizazioaren xedeko araubide erkidegoko arauekin batera, 14/2004 Foru Legearen 54.4 artikuluari jarraituz.

Horiek horrela, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak 2016ko abenduaren 28an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzea.

2016ko abenduaren 3tik aurrerako ondorioekin, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen agindu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 31. artikulua.

“31. artikulua. Zerga-tasa.

Zerga honen tasak hauexek izanen dira:

a) Ehuneko 15etik beheitik gradu alkoholiko bolumetrikoa duten bitarteko produktueta: 38,48 euro hektolitroko.

b) Gainerako tarteko produktuak: 64,13 euro hektolitroko.”

Bj. 35. artikulua.

“35. artikulua. Zerga-tasa.

Zerga-tasa 958,94 eurokoa izanen da alkohol puruaren hektolitroko, 36. eta 37. artikuluetan xedaturikoa galarazi gabe.”

Hiru. 36.2 artikulua, a) letra, bosgarrena, eta b) letra, bosgarrena.

“a) Artisau-destilazioaren araubideko lehen tarifa.

(...)

Bosgarrena. Karga-tasa. Zergaren karga-tasa 839,15 eurokoa izanen da alkohol puruaren hektolitroko. Idatz-zati honetan xedatutakoak ez du ukatzen 37. artikuluan xedatutakoa.

b) Artisau-destilazioaren araubideko bigarren tarifa.

(...)

Bosgarrena. Karga-tasa. Zergaren karga-tasa 839,15 eurokoa izanen da alkohol puruaren hektolitroko. Idatz-zati honetan xedaturikoa ez doa 37. artikuluan xedaturikoaren kontra.”

Lau. 36.4. artikulua.

“4. Destilatzaile txikiek Europar Batasuneko beste estatu batzuetan egindako edari deribatuek sartzea.

Europar Batasuneko beste estatu batzuetako ekoizle beregainak egindako edari deribatuak dagokien tasa, urtean alkohol puruaren 10 hektolitro baino gutxiago ekoizten badute, 839,15 eurokoa izanen da alkohol puruaren hektolitroko.”

Bost. 37. artikulua.

“37. artikulua. Uzta biltzailearen araubidea.

Artisau-destilazioaren bidez lorturiko edari deribatuek zuzenean fabrikatik uzta biltzaileen kontsumora bideratzen direnean, erregelamendu bidez ezartzen diren modu eta baldintzetan, zerga tasa 226,36 eurokoa izanen da alkohol puruaren hektolitroko. Tasa honen aplikazioak alkohol puruaren 16 litroren baliokidea den kopurua izanen du muga, uzta biltzaile bakoitzeko, urte bakoitzean.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta aurreikusitako ondorioak izanen ditu.

